

Bauhaus eskolako emakumeak

Bauhaus eskolaren mendeurrenaren aitzakian, bertan ikasi zuten emakume aitzindarien berri emango dizu Goizalde Landabasok.

Sekuentzia honetan ariketa hauek egingo dituzu:



- **Emakume aitzindari batzuk identifikatu.**
- **Artikulua irakurri eta galderei erantzun.**
- **Aitzindari edo apurtzailea izan den norbaiti buruzko artikulua idatzi.**

1. Bakoitza berean lehen

Zerbaitetan aitzindari direnak erreferente bihurtzen dira guztiontzat. Hala ere, emakumezkoak ez dira gizonezkoak bezain ezagunak gehienetan. Ezagutzen al dituzu alor desberdinetan aitzindari izan diren emakume hauek? Egin lotura egokiak.

Emakume aitzindariak	Zertan aitzindari
Marie Curie	Maratoi batean parte hartu zuen lehen emakumea
Bizenta Mogel	Everestera igo zen lehen emakumea
Valentina Terexkova	Euskal Herriko lehen emakume argazkilaria
Junko Tabei	Nobel saria irabazi zuen lehen emakumea
Kathrine Switzer	Euskaraz idatzi zuen lehen emakumea
Eulalia Abaitua	Espaziora joan zen lehen emakumea

2. Bauhaus eskolaren mendeurrena

Irakurri Goizalde Landabasoren artikulua eta, ondoren, galderei erantzunez, hautatu erantzun egokia.

berria

Gizarte Politika Ekonomia Mundua Irizta Kultura Kirola Berriak BerriaTB

Bauhaus eskolako emakumeak



Egunotan asko irakurtzen ari naiz, eta normalean ikusten ez ditudan gauzak gozatzen (edo) nabil; zuk bezala, nik ere denbora demasa baitut. Alemaniako telebista batek ekoiztutako Bauhaus: Die neue zeit (Bauhaus: garai berria) ikusi dut, eta, horren eraginez, Bauhaus eskolan izan ziren emakumeen ingurukoak begiratzen hasi naiz. Ez dago asko, baina bada zer hortik.

Walter Gropiusek abiarazi zuen eskola Weimarko errepublikan. Ez zuen asko iraun, urtekada batzuk besterik ez, baina hortik izen ezagunak gelditu dira, bai irakasle gisa aritu zirelako, eta baita ikasle gisa ere. Paul Klee, Vasily Kandinsky, Mies Van der Rohe... Eta emakumeak? Eskola horretan edozeinek eman zezakeen izena, eta hainbat emakume abiatu zen bertara. Eta orduan mugak etorri ziren. Gropiusek esan ei zuen zelanbaiteko sailkapen zorrotza egin behar zela eskolara ez zedin edozein sartu. Sailkapena emakumezkoekin, jakina, gure gaitasuna beti izan da zalantzarria. Gauza batzuetarako aurrerakoi har genezakeen Gropiusek berak ere pentsatzen zuen emakumeak genetikoki hobeto moldatzen zirela bi dimentsioetan. Marianne Brandt, Lilly Reich, Dötte Helm, Gunta Stolz, Anni Albers, Alma Siedhoff-Buscher, Otti Berger... 400dik gora emakume aritu zen han bi dimentsiotik gora.

Bauhaus Eskolaren mendeurrenak argi apur bat eman die emakume aitzindari eta apurtzaile hauei, baina oraindik ere zalantzarriak gara. Izan ere, aipatu dizudan telesail horrek aipatzen du, esaterako, Gunta Stolz artista, baina batez ere, Dörte Helm margolari eta diseinatzailea du jomugan. Eta zer kontatzeko eta maitasun istorio ustezko bat. Alegia, berriz ere bigarren mailan (edo deuseztatuta) geratzen direla emakumearen jardun artistiko eta profesionala. Maiz pasatzen zait, espektatibaz beterik joan zerbaitera eta zaputuz hartu. Denbora lar dudanez, zerbait interesgarria aurkitzen badut, kontatuko dizut, honek luze joko baitu.

2020ko martxoak 31

Goizalde Landabaso

1. Walter Gropiusek abiarazi zuen eskolak...

- a) urtekada batzuk baino ez zuen iraun, baina jende ezaguna ibili zen bertan.
- b) ospe handia izan zuen edozeinek eman zezakeelako bertan izena.
- c) emakumei mugak jartzea erabaki zuen jende ezagun asko hartu zuen, tartean ziren Klee eta Kandinsky, adibidez.

2. Eskola horretan edozeinek eman zezakeen izena...

- a) baina emakumezkoen kasuan mugak ezarri ziren.
- b) baina sailkapen zorrotza egiten zen jatorriaren arabera.
- c) emakumeek izan ezik.

(aurreko orritik dator)

3. Alemaniako telebistak...

- Gunta Stolzl eta Dorte Helm azaletik aipatzen ditu, baina gainerakoen profesionaltasuna txalotzen du.
- Dorte Helm artista maitasun-aferra batengatik nabarmentzen du, haren jardun profesionalaren ordez.
- emakume artista eta apurtzaileak soilik aipatzen ditu: Gurta Stolzl eta Dorte Helm.

4. Goizalde Landabasok...

- uste zuenaren kontra, telesailak positiboki eragin dio.
- espero zuen sentipena izan du telesailarekin eta nola jarraituko duen irrikan dago.
- telesaila dela-eta beste zerbait espero zuen, eta desilusionaturik geratu da.

3. Emakume aitzindaria

Emakume asko izan dira gizartean bidea ireki dutenak elkarrekin, ospakizunetan, kultur-arloan, politikan, zientzian... Horiek gehiago ezagutarazteko, emakumezko batek (edo talde batek) egindako ekarpenaren berri emateko eskatu zaizu Emakunde aldizkaritik.

Idatzi 250 hitzeko artikulua honakoak aipatuz:

- 1. Sarrera: aurkeztu pertsonaia**
- 2. Adierazi zertan nabarmendu den, zein den egindako ekarpena**
- 3. Eman amaiera balorazio orokor baten bidez**

(Eredu bat duzu erantzun-orrrian)



ERANTZUNAK

1. Bakoitza berean lehena

1. Marie Curie - Nobel saria irabazi zuen lehen emakumea
2. Bizenta Mogel - Euskaraz idatzi zuen lehen emakumea
3. Valentina Terexkova - Espaziora joan zen lehen emakumea
4. Junko Tabei - Everestera igo zen lehen emakumea
5. Kathrine Switzer - Maratoi batean parte hartu zuen lehen emakumea
6. Eulalia Abaitua - Euskal Herriko lehen emakume argazkilaria

2. Bauhaus eskolaren mendeurrena

1. a
2. a
3. b
4. c

3. Emakume aitzindaria

EREDUA



Urrezko emakumeak

Sorne Unzueta nahiko ezezaguna izan dugu oraintsu arte euskal letren munduan, baina egin zuen lanak mundu horretan bere lekua behar duela erakutsi du. Ez zuen bere burua idazle handitzat Sornek, baina barruak hala eskatuta, hainbat lan idatzi zituen, eta, horrez gain, garaiko egoera politikoan aktiboki hartu zuen parte. Esan daiteke bere garaiko emakumeen artean bide urratzailea izan zela Sorne.

Bilbon, Abandon jaio zen 1900ean. Bizkaiko Aldundiak egindako auzo-eskoletako euskarazko lehenengo irakasle-taldekoa izan zen, eta hainbat lekutan ibili zen: Gamizen, Berangon, Lemoan eta Bedian. Emakume Abertzale Batzan zuzendaritza-ardurak bete zituen, eta jende aurrean hizlari ibili zen emakumeen botoak abertzaleen aldera batzeko eta andrak gizartearen gehiago parte hartzera bultzatzeko.

Bestalde, era askotako idatziak egin zituen: iritzi-artikuluak, narrazioak, umeentzako ipuinak eta abar. Baina batez ere poesian dauka idazlan multzorik handiena. Lehenengo olerkiak 1932an idatzi zituen, euskal literatura, eta poesia batez ere, unerik onenean zegoenean.

Orduko beste idazle gehienek moduan, Sornek ere ezizena erabili zuen lanak sinatzeko: "Utarsus", Unzueta'tar Sornetik hartua. Neurri handi baten horregatik ez dugu ezagutu oraintsura arte.

1932tik gerra bitartera hainbat lan argitaratu zituen, *Euzkerea* eta *Bizkaitarra* aldizkarietan batez ere. Gerra garaian erbestera joan behar izan zuen. Hala eta guztiz ere, inoiz ez zion utzi idazteari. Erbestealdia Frantzia eman zuen, eta han zegoela erresistentzian ibili zen. Erbesteko Eusko Jaurlaritzarekin ere lan egin zuen.

Sornek lan handia egin zuen, bai agerian, bai isilpean. Berak eta bere moduko beste askok egindakoak ekarpen handia egin dio euskal gizarteari, eta haiei denei eskerrak eman beharrean gaude.

Igone Etxebarria (Emakunde aldizkaria. Moldatua).